


Iban Zaldua

BIODISKOGRAFIAK

–Diskoak, kaseteak, eta beste zenbait oroitzapen faltsu–



erein



NIRE JAIOTZA-DATA (I)

The Beatles
Revolver
EMI, 1966.

«Batzuk harrotzen dituk beren jaiotza-data idazle edo artista handi baten jaiotza-datarekin batera gertatu zelako, edo gertaera historikoren bat jazo zelako egun hartan. Nik beti aldarrikatu izan diat nire jaiotza eta The Beatles taldearen *Revolver* diskoaren argitalpena urte berean gertatu zirela, 1966an alegia. Ez diat horoskopoetan eta halakoetan sinesen, baina *Revolver*-ekin batera jaiotzea gauza handia iruditu zaidak beti, betiko babestuko nindukeen talisman bat izango balitz bezala: horixe izan duk neure bizitzan nolabaiteko superstizio bati leku egin diodan kontu bakarra.

»Edozein pop zalerentzat eztabidaezina duk *Revolver*en kokapena inoizko album onenen panteoian: lehenengo ez bada, lehenengotakoa izango duk, zalantzarik gabe, eta hala aitortu ohi ditek hortik zehar argitaratzen diren zerrenda gehienek. Disko perfektua duk, “Taxman” ironikotik hasita –zenbat aldiz ez ote da kopiatu bere *riff*-a!– “Tomorrow Never Knows” artegagarri eta onirikoraino –bateria-kolpe lehor horiek, efektu estrainio guztiak...–. Eta, gainera, bertan aurki daitezkeek, besteak beste, “Eleanor Rigby”-ren tristezia kostunbrista neurtua eta “I’m Only

Sleeping”-en psikodelia nagia. “Love You To”-ren sitar-hotsak eta “She Said She Said”-en doinu alaia, gitarren pop-aren harribitxia. “And Your Bird Can Sing”-en hutsaltasun distiraz betea eta “Here, There and Everywhere”-ren erromantizismo kasik panteista. “Doctor Robert” jostaria eta “Got to Get You into My Life” *soul* abesti mozorrotua. Are milaka aldiz entzunarazi diguten arren, testuinguru horretan badik bere zera “Yellow Submarine”-ren infantilismo kutsuak. Beatles gailurrera iritsi zituan *Revolver*ekin, heldutasun artistikora, eta harekin batera, hein batean behintzat, baita rockaren kultura ere.

»Horregatik ezin izan nian sinetsi nire bizitza haize-kontra joaten hasi zenean. Ez nauk xehetasunetan sartuko, baina kontua duk gauzak gaizki joaten hasi zitzaizkidala, izugarri gaizki: porrot egin zidatean inbertsioek, adiskide min baten iruzurra, arazoak familian... Behin eta berriro ipintzen nian *Revolver* etxeko jogailuan, baina exorzismo moduko horrek ez zian funtzionatzen. Obsesionatzen hasi ninduan. Lagunek, jakina, burutik sano ez nengoela esaten zidatean, baina nik azken hondarreraino iritsi nahi nian.

»Zehatzago izatea beste erremediorik ez, eta ikerketa txiki bat hasi nian. Nire jaiotza-eguna 1966ko otsailaren 18a duk. Laster jakin nian data hori ez zetorrela inondik ere bat diskoaren argitalpenarenarekin, udan gertatu baitzen hori, baina banian itxaropenik: pentsatzen nian diskoko kantetako bat sikiera otsailaren 18an grabatu izan balitz, salbu egongo nintzela, zorte txarreko bolada baino ez zela izango. Beatles-en historiaren kronologia zehatzak kontsultatu nitian, baina alferrik izan zuan: 1966ko lehenengo hiruhilekoan, Paulek, Johnek, Georgek eta Ringok ordura arteko

haien karrerako oporraldi bakarra hartu zitean, eta ez zituan apirilera arte elkartu *Revolver* grabatzen hasteko.

»*Revolverekin* zer ikusirik zuen ezer ez bazen gertatu otsailaren 18 horretan, zer dela eta izan zitekeen egun hori esanguratsua, pop musikaren arloan? Horixe zuan nire kezka, eta honako hauxe nire peskiza gero eta urduriagoen ostean topatutako erantzuna: egun horretan bertan hasi zirela The Beach Boys “Good Vibrations” grabatzen, haien azkeneko klasikoa».


Hori guztia kontatu zidan abuztuko gau batean, garagardo pinta baten truke, ezagutu berria nuen John Forestek, Londresko Camden auzoko pub batean. Nik, jakina, galdetu nion ea zer izan zezakeen kaltegarria “Good Vibrations”-ek, eta berak «Dena» erantzun zidan, «baina gutxienez beste pinta bat beharko diat kontatzeko». Eta nik ere beste disko bat beharko dudanez hori azaltzeko eta, ondorioz, beste ipuin bat, gerorako utziko dut istorio honen amaiera.

DERAM 9ML 737



DAYS OF FUTURE PASSED THE MOODY BLUES

With
THE LONDON FESTIVAL ORCHESTRA
conducted by PETER KNIGHT



THE DAY BEGINS♦DAWN: Dawn is a feeling♦THE MORNING: Another morning♦LUNCH BREAK: Peak hour
THE AFTERNOON: Forever afternoon (Tuesday?): Time to get away♦EVENING: The sun set: Twilight time♦THE NIGHT: Nights in white satin



ERREPIDE-JATETXEA

The Moody Blues
Days of Future Passed
Deram, 1967.

Uda hartan –90eko hamarraldiaren amaiera zen– Estatu Batuetako ekialdeko kostaldean bidaiatzeko asmoa genuen. New Yorken egun batzuk igaro ondoren, auto bat alokatu eta hegoalderantz abiatu ginen: New Jersey, Delaware, Maryland, Washington DC, Virginia, Ipar eta Hego Karolina, Georgia. Floridan, ordea, ez genuen suerte ona izan: Everglades delakoetan, infernuko gaua pasarazi ziguten eltxoek eta, biharamunean, ezin izan ginen Miami heldu. Urakan bortitza iragarrita zegoen, eta ospa egin behar izan genuen, iparralderantz, beste hainbat turistaren eta bertakoren antzera.

Auto-egun gogaikarri baten ondoren, zerbait afaltzera gelditu ginen errepede ondoko jatetxe batean, Florida eta Georgia arteko mugatik aski hurbil. Go Now zeukan izena, eta sartu bezain laster konturatu ginen taberna tematikoa zela hura, musika-talde bati eskainia: The Moody Blues. Hormak taldearen argazkiz eta gadgetez estaliak ageri ziren, eta baita gitarra zaharrez, sinatutako jaka hortera samarrez eta disko-azalez ere; kartako platerak eta edariak taldearekin lotutako izenak zituzten –Hayward Steak, Last Chord Gin Fizz...–, eta bozgorailuek, jakina, Moody Blues-en kantak isurtzen zituzten soilik.

Egun hartan bezero gutxi zegoen. Barra ondoan eseri ginen, eta adineko gizon batek egin zigun kasu, berrogeita hamar eta hirurogei urte bitartekoa, bizar eta motots urdin-luzekoa, sendoa: Sam zen, jabea. Ez zuen akuilu zorrotzgiaren beharrrik kalakan hasteko: «Begira, ni izan nintzen Moody Bluesen arrakastaren erantzulea; bai, hala da, ez da harrokeria, ez jarri aurpegi hori. “Nights In White Satin” kantak apenas izan zuen oihartzunik, ezta Britainia Handian ere, ni irratian hura ipintzen hasi nintzen arte; bai, bai, garai hartan Dja nintzen, gaueko saioa egiten nuen, hamabietatik laurak arte, oso aspergarria, badakizue: ia bakarrik estudioan, deirik apenas... Ba, etengabe jarri nuen denboraldi batez, hura baitzen irratian emititzen uzten ziguten singlerik luzeena, eta nik luzeena ipini nahi izaten nuen, kabinatik atera eta marihuanazko ur-pipa erretzeko astia izateko. Pentsa, zazpi minutu irauten du abestiak, eta garai horretan ia ez zegoen iraupen horretako singlerik: ez ziren komertzialak. Ba gero toki guztietan jartzen hasi ziren: zerrenden gailurrera iritsi zen! Moody Blue-sekoek ere ez zuten sinesten... Ez duzuela kanta ezagutzen? Nola ezetz?». Barraren atzeko aldera itzuli eta zer edo zer egin zuen: musika une batez isildu eta abesti batek ordezkatu zuen aurrekoa. Ezagutzen genuen, noski, Moody Bluesena zenik ez genekien arren. Gero, afaldu bitartean, bere bizitzako pasadizo gehiago kontatu zizkigun Samek, batzuk benetan bitxiak.

Joan baino lehenago abesti hura agertzen zen CDa erosi genuen, nahiko merke, jabetxean bertan; bazeuden *Days of Future Passed* horren beste ale garestixeago batzuk ere salgai, bateria jotzailearen sinadura-rekin, baina ez genien jaramonik egin. Iparralderako bidaiari bizpahiru

aldiz ipini genuen autoaren jogailuan, baina laster aspertu ginen. Gero, Euskal Herrira itzultzean, niri egokitu zitzaidan CDa, eta noizean behin entzuten dut. Rock sinfonikoaren gehiegikerien aurrekaria –orkestra batez inguratu zen Moody Blues hura grabatzeko–, badu bere puntu psikodeliko-naïfa, dezente atsegin dudana. Eta, diskoa ixteko, “Nights in White Satin”, noski, Coldplay-ren –esate baterako– kanta tragiko horietako edozein txiki uzten duena.

Joan den udan Estatu Batuetara itzuli ginen, mendebaldeko kostaldea ezagutzeko asmoz. Seattletik hegoaldera abiatu eta, Washington eta Oregon arteko mugan, White Satin kafetegia errepede ondoan ikusirik, nola ez, bertara sartu ginen; hura ere, susmatu bezala, Moody Blues taldeari eskainitako tenplua zen. Ez ginen gehiegi harritu jakitean bertako jabe burusoilak Sam zuela izena, ezta kontatzen hasi zitzaigunean ere: «Ba al dakizue? Ni izan nintzen Moody Bluesen arrakastaren erantzulea; DJa nintzen garai hartan, eta...».